BIZITEGI ERAIKINA — SAN MARTIN 57

D MAILA





Egilea eta data: Juan R. Alday; 1905

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz erdisotoa, bastardea eta bost goi oin dituena, gehi jasodura atzeraeman bat (1916an proiektatutako estalkipea aldatuta). Berritzeko eta jasodurak altxatzeko lanak egin dira 2007-2011 urteetan. Harlanduzko fatxada, hormigoizko begiratokia duena ezkerraldeko baoan. Apaingarriei (hormigoizko begiratokia barne), datari eta egileari dagokionez San Martin 55en berdina da.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 6. eta 7. goi oinak.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.